

Gipuzkoako Entomologia Elkarte  
Asociación Gipuzkoana de Entomología

# Heteropterus

ISSN: 1576-1819

Nº 20 Zkia. - Julio 2008 Uztaila



Una mosca  
salta siempre  
al revés  
cuando  
intentas golpearla.



Labezomorro batek  
48 orduz  
iraun dezake  
bizirik  
izozkailu batean.

La oruga de la mariposa  
costarricense *Eudocima colubra*  
tiene una particularidad fuera  
de lo común. Si la sorprenden  
en la corteza de los árboles,  
se lanza al árbol más cercano  
volando rápidamente  
gracias a sus brillantes alas  
traseras amarillas, las cuales  
tiene escondidas normalmente.



Thailandia iparraldean,  
errinozero kakalardo arren arteko  
borrokak antolatzen dituzte. Aurkaria  
hiltzen duena  
izaten da irabazlea.



**Argitaratzailea / Edita:**  
Gipuzkoako Entomologia  
Elkartea - Asociación  
Gipuzkoana de Entomología

**Lege-gordailua / Depósito  
legal:**  
SS - 1.378/99

**ISSN:** 1576-1819

**Erredakzio taldea /  
Comité de redacción:**  
Pedro Ayerbe  
Mónica Menéndez  
Arantza Oyarbide  
Faustino Uranga  
Imanol Zabalegui

**Azalaren diseinua / Diseño de  
la portada:**  
Faustino Uranga

**Azaleko argazkia / Fotografía  
de la portada:**  
*Cetonia carthami* Gory & Percheron  
1833  
Pablo Bahillo de la Puebla

Dohainikako argitalpena bazkide,  
Gipuzkoako Eskola eta Udale-  
txeentzat / Publicación gratuita  
para los socios, Colegios y  
Ayuntamientos de Gipuzkoa.

**HETEROPTERUS**  
Egoitza soziala / Sede social:  
OIARTZUN (Gipuzkoa)

**Gutunak helbide honetara bidali  
behar dira / Toda la correspondencia  
debe enviarse a:**

**HETEROPTERUS**  
Apdo. 193 P.K.  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
✉ heteropterus@gmail.com

**Nº 20 Zkia. • Julio 2008 Uztaila**

# HETEROPTERUS

GIPUZKOAKO ENTOMOLOGIA ELKARTEA  
ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DE ENTOMOLOGÍA

## AURKIBIDEA – INDICE

	<u>Orr. / Pág.</u>
<b>Editoriala / Editorial</b> .....	4
<b>Zumatra eta Borneo bi paradisu dira / Zumatra y Borneo son dos paraísos</b> .....	5-7
Santiago Pagola Carte	
<b>Jakitera emanaz / Se hace saber</b> .....	8-10
Liburuzaina / Bibliotecario	
<b>Gipuzkoako intsektuak / Insectos de Gipuzkoa</b> ...	11-22
<b>Internet: Orri interesgarriak / Páginas de interés</b> .....	23-24
Mónica Menéndez Muñiz	
<b>4. Gertakari gastroentomologikoa Hernanin / 4º Evento Gastroentomológico en Hernani</b> .....	25-27
Jorge Luis Agoiz Bustamante	
<b>Hemeroteka</b> .....	28-29
<b>Intsektuekin jolasean / Jugando con los insectos</b> .....	30
Faustino Uranga	



Oiarzungo Udalaren laguntzarekin  
Con la colaboración del Ayuntamiento de Oiarzun.

# EDITORIALA - EDITORIAL

## Nº 20 Zkia. - Julio 2008 Uztaila

Badirudi atzo izan zela, ilusio handiz, "HETEROPTERUS" aldizkariaren lehenengo alea argitaratu genuen eguna.

Lerro hauetatik Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuari eskerrak eman nahi genizkioke, berriro ere, beraiek eman diguten laguntzagatik. Hein handi batean, honek ahalbidetu baitu, aldizkariaren 20. alea zure eskuetara iristea.

## Nº 20 Zkia. - Julio 2008 Uztaila

Parece que fue ayer cuando con toda la ilusión empezamos a publicar esta revista divulgativa "HETEROPTERUS".

Volvemos a aprovechar estas líneas para agradecer al Departamento de Euskera de la Diputación Foral de Gipuzkoa por su ayuda. Esta ha hecho posible, en gran medida, que puedas tener en tus manos esta revista nº 20.

Bazkide egiteko datuak / Datos para hacerse socio

Izen Abizenak / Nombre y Apellidos.....  
.....  
Helbidea / Dirección.....  
Herria / Localidad.....KP / CP.....

Bazkide / Socio: 25 euro urteko / anuales (2008)  
Bazkide gaztea / Socio juvenil: 20 euro urteko / anuales (2008)  
(Para el extranjero 5 euros más / Atzerrirako 5 euro gehiago)

## "HETEROPTERUS"

**Gipuzkoako Entomologia Elkarte** -  
**Asociación Gipuzkoana de Entomología**

Egoitza soziala / Sede social: OIARTZUN (Gipuzkoa)

✉ Gutunak / Correspondencia: Apdo. 193 P.K.

20120 HERNANI (Gipuzkoa)

☎ 943 331 300

💻 heteropterus@gmail.com

Orri hau ez baduzu moztu nahi, fotokopia batean edo paper batean bidali ditzakezu zure datuak. Si no quieres cortar esta hoja, puedes fotocopiarla o simplemente mandarnos tus datos escritos en una hoja.

# Zumatra eta Borneo bi paradisu dira

## Zumatra y Borneo son dos paraísos

Santiago Pagola Carte

Izan al zarete inoiz herri horietan? Ez dut uste existitzen direnik ere. Zumaian eta Bermeon, bai, izan naiz ni. Eta jakin badakit Sumatra eta Borneo kilometro dezentetara dauden uhartearak direla. Euskaldunok oso gustuko ditugu hitz-jokoak eta nik horrekin nahi nuena zen nola-baiteko irudi mental bat sortzea, hurbiltasunaren irudia hain zuzen, urrutiko leku exotiko eta entomologoentzat iradokitzaileen eta beste leku hurbilago eta printzipioz ez hain "misteriosuen" artean. Bueno, baina inor ez dadila haserretu, geure kostaldeko herri horietako inor, esan nahi dut. Orain, izenburuarena behin azalduta, ahaztu herri horiek, haien arrain goxoak eta txakolina ere bai, eta jar ezazue Aiako Harria Parke Naturala, horren hurbil daukagun "laborategi irekia", alegia.

Ea, ba, zerk lotzen ditu hango oihanen opoatasuna eta hemengo baso eta haranaren apaltasuna? Hain zuzen ere, misterioak. Eboluzioaren milioika urteko misterioak. Hainbat eta hainbat bizidun, haien artean hainbat eta hainbat zientziarako ezezagun direnak, sortu dituen eboluzioak. Azken bolada honetan egunkarietan irakurriko zenituzten zientzialari ausart batzuek expeditzioren batean bizitako istorio eta pasadizoak, eta nola Asiaren hegoekialdetik itzultzen diren deskribatu gabeko animalia eta landareekin, hau da, inongo gizakik inoiz ez behaturiko bizidunekin... Hemengo entomologo batzuoï (agian ez haiek bezain ausartak, baina bai antzeko jakinguraz beteak) horrelako zerbait gertatzen ari zaigu Gipuzkoaren iparrekialdetik itzultzean: Aritxulegiko mendatetik, Añarbeko basotik, etab.etik.

Galdera gehiago. Nola da posible hori? Bi erantzun. Lehenengoa: Hori posible da zeren eta, nahiko ongi estudiantuta dauden talde gutxi batzuen salbuespenarekin, euskal faunaren gehiengoa ez baita behar bezala aztertu. Imajina itzazue txiki-txiki diren hainbat eta

¿Habéis estado alguna vez en esos pueblos? No creo que existen. Yo he estado en Zumaia y en Bermeo. Y sé que a bastantes kilómetros quedan las islas de Sumatra y Borneo. Los vascos somos muy dados a los juegos de palabras y lo que me proponía era crear una imagen mental de acercamiento entre unos lugares tan distantes, exóticos y sugerentes para cualquier entomólogo y otros tan cercanos y en principio poco "misteriosos" (que no se ofenda nadie) como los pueblos de nuestra costa. Ahora, una vez explicado el título, olvidaos de estos pueblos, de sus ricos pescados y su chacolí y poned el Parque Natural de Aiako Harria, este familiar "laboratorio al aire libre".

Bueno, ¿y qué es lo que une la exuberancia de aquellas selvas y la modestia de estos bosquecillos y valles? Pues precisamente el misterio. El misterio de millones de años de evolución. La evolución que ha dado origen a infinidad de seres vivos, muchos de los cuales son aún desconocidos para la ciencia. Últimamente habréis leído en los periódicos los relatos de algunos científicos que, tras una expedición no libre de aventura, vuelven del sureste asiático con animales y plantas que están por describir, que no habían sido nunca antes contempladas por ningún ser humano... A algunos entomólogos (quizá menos intrépidos pero igual de curiosos) nos está ocurriendo algo parecido al volver del noreste gipuzkoano: del puerto de Aritxulegi, del bosque de Añarbe, etc.

Más preguntas. ¿Cómo es esto posible? Dos respuestas. La primera: Esto es posible porque, con la excepción de algunos grupos más o menos bien estudiados, la mayor parte de la fauna vasca está sin investigar como es debido. Imaginaos tantos y tantos grupos de animales minúsculos... Hay órdenes enteros de insectos a los que nunca nadie les ha prestado atención en nuestra tierra. Mantenemos la

hainbat animalia... Badaude intsektu-ordena osoak gurean inork sekula arretarik jarri ez diena. Zalantza ere badago Gipuzkoan edota Euskal Herrian bizi diren animalia-espezieen kopurua zein magnitude-ordenetakoak izatera irits litekeen: Adibidez, 7.304, 9.277...? Ala, agian, bost zifrako kopuru bat: 13.712, 31.119...?

Bigarren erantzuna: Aiako Harria Parke Naturalean posible izaten ari da ezaguera entomologikoan aurrera egitea eta aurkikuntza interesgarriak egitea Parkeko Patronatuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren borondateari esker, azken urteetan bertako entomofaunaren ikerketak bultzatzen ari baitira. Hori koipea ematea dela esango du baten batek (eta arrazoi pixka bat ere izango du), baina beharrezkotzat jotzen dugu argi eta garbi uztea erakundeek biodibertsitateari buruzko ikerketen alde egiten dutenean, emaitzak zoragarriak direla. Ez da nahikoa "biodibertsitatea" edo "garapen jasangarria" bezalako hitzak ahoa betean aipatzea. Euskal Herrian, intsektuen familia bakar bati buruzko ikerketa ere diruz laguntzek ekar dezake egun bateko egunkariak Oiartzungo edo Zumaiako aurkikuntzak aurkeztea, eta ez Sumatrakoak. Hona hemen hiru adibide, Parke honetan duela gutxi deskribaturiko espezieenak, bakoitza bere anekdotarekin batera. Hiru deskribapenak Elkartearen zientzi-aldizkarian argitaratu dira (Heteropterus Rev. Entomol., 5. eta 6. aleak).

### (1) *Mayetia amicorum* Hernando, 2005

Lurzoruaren goiko geruzetan bizi den koleoptero estafilinidoa da, milimetro t'erdi baino gutxiagokoa luzeran. Gaztainondo baten azpian harrapatu zen, Aritxulegira (Oiartzun) igotzen den errepidearen ondoko baso batean.

**Anekdotak.** Egunkariaren eta irratiaren oihartzuna handia izan zen, eta behin eta berriz deitzen zuten telefonoz informazio eske, bai guri baita Carlesi berari ere. Oraindik gaur egun, txundituta geratuko zarete Google-en "*Mayetia amicorum*" jarriz gero. Bitxikeria bat, Bilboko 1. zk.ko loteria-dendare-


duda incluso del orden de magnitud en que podría situarse la cantidad de especies animales que viven en Gipuzkoa o en el País Vasco: ¿Algo del tipo 7.304, 9.277...? ¿O más bien una cantidad de cinco cifras: 13.712, 31.119...?

La segunda respuesta: En el Parque Natural de Aiako Harria está siendo posible avanzar en el conocimiento entomológico y hacer interesantes descubrimientos gracias a la voluntad del Patronato del Parque y de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que llevan varios años impulsando el estudio de su entomofauna. Alguien dirá que esto es peloteo (y en parte lo es), pero vemos necesario dejar bien claro que cuando las instituciones apuestan por el estudio de la biodiversidad, los resultados son fantásticos. No basta con llenarse la boca de palabras como "biodiversidad" o "desarrollo sostenible". En el País Vasco, apoyar económicamente la investigación incluso de una sola familia de insectos puede hacer que un día cualquiera los periódicos hablen de los descubrimientos de Oiartzun o Zumaia y no de Sumatra. Os proponemos los tres ejemplos de especies nuevas recientemente descritas en este Parque, cada una con su anécdota. Las tres descripciones se han publicado en la revista científica de la Asociación (Heteropterus Rev. Entomol., vols. 5 y 6).

### (1) *Mayetia amicorum* Hernando, 2005

Es un coleóptero estafilínido de menos de milímetro y medio que vive en las capas superiores del suelo. Fue recolectado al pie de un castaño, en un bosque cercano a la carretera que sube a Aritxulegi (Oiartzun).

**Anécdota.** Los periódicos y las radios se hicieron eco de la noticia y no dejaban de llamar por teléfono pidiendo información a nosotros o directamente a Carles. Aún hoy podéis alucinar un poco si ponéis en Google "*Mayetia amicorum*". Una de las perlas corresponde a la famosa administración de lotería nº 1 de Bilbao, donde, inspirados por esta noticia, idearon el "escarabajo de la suerte"



*Mayetia amicorum* (argazkia / foto: Carles Hernando).

na: Albiste horretan inspirazioa omen aurkitu eta "zortearen kakalardoa" asmatu zuten maskota modura. Hemen ikus dezakezue: <http://www.loterias.com/general/escarabajo.html>.

### (2) *Sciasminettia europaea* Carles-Tolrá, 2006

Lau milimetro inguruko euli dotorea da, Añarbeko pagadi-hariztiko eta inguruetako (Errenteria eta Hernani) argiguneetan harat-honat hegan egiten duena. Ikusten denez, ez da zertan lur azpian bizi oharkabean pasatzeko. Badago tantoz hornitutako hego politekin hegan ibiltzea eta izenik ez izatea, Miguelen eskuetan erori arte noski.

**Anekdotak.** Genero honek beste bi espezie ditu, Asian zeharreko banaketa dutenak. Generoa Europan aurkitu izana bada, berez, gertakizun handia, batez ere kontuan hartuta bere familia (Lauxaniidae) nahiko ondo estudiatua izan dela Europa mailan. Hori bai, gure Parke maitean begiratzeko falta omen zen...



*Sciasminettia europaea* (argazkia / foto: Miguel Carles-Tolrá).

como mascota. Podéis verlo en <http://www.loterias.com/general/escarabajo.html>.

### (2) *Sciasminettia europaea* Carles-Tolrá, 2006

Es una bonita mosca de unos cuatro milímetros que vuela de aquí para allá en los claros del hayedo-robledal de Añarbe y sus proximidades (Errenteria y Hernani). Vemos, pues, que no hace falta vivir bajo tierra para pasar desapercibido. Se puede volar con unas preciosas alas moteadas y no tener nombre, al menos hasta que caes en manos de Miguel.


**Anekdotak.** Este género contiene otras dos especies, de distribución asiática. Ya solo el

hallazgo del género en Europa es un gran acontecimiento, sobre todo teniendo en cuenta que la familia a la que pertenece (Lauxaniidae) está muy bien estudiada a nivel europeo. Claro, faltaba mirar en nuestro querido Parque...

### (3) *Hypsitylus arberlitz* Pagola-Carte, 2006

Ba, hau, zimitz bat dugu, zimitz miridoa. Ez da ziztada egiten duten horietakoa, basa zimitza baizik, hau da, landareetan bizi direnetakoa. 3 eta 4 milimetro artekoa da eta elikagai dituen landareen kolore berekoa da. Erlaizko (Irun) larretan aurkitu dugu.

**Anekdotak.** Bere elika-landarea *Daphne cneorum* da, Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartuta dagoena. Landarea mehatxatuta baldin badago eta, dakigunaren arabera, zimitza Aiako Harria Parke Naturealean endemikoa baldin bada... ez al luke intsektu babestuen zerrendaren batean egon behar? Niri gustatuko litzaidake eta, oker ez banago, zimitzari ere bai.



*Hypsitylus arberlitz* (argazkia / foto: Estibaliz Arbelaitz).

### (3) *Hypsitylus arberlitz* Pagola-Carte, 2006

Pues esto es un chinche, un chinche mirido. No de los que pican, sino de los de campo, que viven sobre la vegetación. Tiene entre 3 y 4 milímetros y es del mismo color que las plantas de las que se alimenta. Se ha encontrado en las campos de Erlaitz (Irun).

**Anekdotak.** Su planta nutricia es *Daphne cneorum*, incluida en el Catálogo Vasco de

Especies Amenazadas. Si la planta está amenazada y, hasta donde sabemos, el chinche es endémico del Parque Natural de Aiako Harria... ¿no debería estar incluido en alguna lista de insectos protegidos? A mí me gustaría y creo que al chinche también.

# Jakitera emanez / Se hace saber

Liburuzaina / Bibliotecario

Dakizuen bezala, Elkarteak argitaratzen duen aldizkari zientifikoa (bestea, gris kolorekoa) bazkide guztiei banatzen da, mundu osoko hainbat liburutegi eta erakundetara bidaltzen da donazio modura eta... beste hainbat aldizkariarekin TRUKATZEN DA. Hori dela eta, urte gutxi batzuetan Euskal Autonomi Erkidegoko liburutegi entomologikorik hoberenetako bat sortzen ari da (inork ez dezala galde zenbat dauden). Beharrezko zaigu liburuzain bat izaitea eta, tira, momentuz ni naiz liburuzaina eta ahal dudana egiten dut. Uste dut badela garaia informazioen bat emateko, ezta? Eta baita, DISIMULU HANDIZ, zerbait eskatzeko ere.

Heteropterus Rev. Entomol. ondoko zerrendan agertzen diren aldizkako argitalpenekin trukatzeko da. Zerrendan adierazita dago aldizkari bakoitzaren sorta zein ale eta urtetan hasten den, bai eta beste bi kontu ere: zein sortak dituen etenaldiak (honela: “[...]”) eta zein aldizkari EZ DUEN ONARTU trukezik eta erostera edo harpidedun izatera eraman gaituen (honela: “[€]”).

Hori esanda, liburuzainak adierazi nahi du:

1- Liburutegi hau zuen zerbitzura dagoela, betiere aurretiko eskaera eginez gero, joateko, fotokopiak eskatzeko, etab.

2- Elkartearen jasotzea nahi dituzuen aldizkarietako trukea eskatu daitekeela, delako aldizkariaren izenaz gain, kontaktatzeko informazioa, etab. ematen badiguzue. Beste kontu bat da gero trukea lortzea; aldizkari batzuek enpresa editorialen batek egindakoak dira eta erosketa bidez baino ezin dira eskuratu.

3- Liburutegiak biziki estimatuko dituela aldizkari berrien edota aipatutako aldizkarien aurretiko zenbakien donazioak, bai pertsona partikularrengandik (adibidez, etxean paper gehiago sartzerik ez dagoenean) bai eta erakunde argitaratzaileengandik ere (egoera berdintsuan

Como sabéis, la revista científica que edita la Asociación (la otra, la gris) se distribuye a todos los socios, se dona a algunas bibliotecas e instituciones repartidas por todo el mundo y... SE INTERCAMBIA con otras revistas, de modo que en unos pocos años se está formando una de las mejores bibliotecas entomológicas de la Comunidad Autónoma Vasca (que nadie pregunte cuántas hay). Este hecho hace necesaria la existencia de un bibliotecario en la Asociación, función que de momento cumplo yo como buenamente puedo. Y ya es hora de que os informe de algo, ¿no? Y de que os pida algo DISIMULADAMENTE.

Heteropterus Rev. Entomol. se intercambia con las publicaciones periódicas que se enumeran a continuación. Indicamos el volumen y año de inicio de las series de revistas, así como dos circunstancias: serie con interrupciones (mediante “[...]”) y publicaciones que NO HAN ACEPTADO el intercambio y se adquieren por compra o suscripción (mediante “[€]”).

Pues bien, el bibliotecario hace saber:

1- Que esta biblioteca está a vuestra disposición, previa consulta para el acceso, solicitud de fotocopias, etc.

2- Que se pueden solicitar nuevos intercambios con aquellas revistas que os interese se reciban en la Asociación, siempre que facilitéis, además del título, la información necesaria para el contacto, etc. Otra cosa es que luego consigamos el intercambio; algunas revistas pertenecen a empresas editoriales y sólo se pueden adquirir por compra.

3- Que la biblioteca acogerá agradecida cualquier donación de nuevas revistas o de números anteriores de las señaladas en la lista, tanto por particulares (que ya no les caben más kilos de papel en casa, por ejemplo) como por las propias instituciones que las editan

daudenean edo, besterik gabe, liburutegi honekin kolaboratu nahi badute). Donazioak horrela geratuko dira jasota liburutegiaren artxiboetan, emailaren izena eta guzti. Ez ahaztu hau ere badela modu bat norberaren izena gerora pasatzeko.

Aldizkako argitalpenei (aldizkari) buruz hitz egin dugu. Hurrengo batean monografi (liburuei) buruz hitz egin genezake, bai eta kontatu ere zer egin behar den NAHI DITUZUEN LIBURU GUZTIEN DONAZIOA Elkarteari egiteko. Tira, beste batean izango da hori. Ordura arte, jaso itzazue liburuzain honen agurrik bibliofiloenak.

(que puedan estar en una situación parecida o simplemente quieran colaborar con esta biblioteca). Cualquier donación quedará registrada como tal en los archivos de la biblioteca, indicándose el nombre del donante. Es un modo como otro cualquiera de pasar a la posteridad.

Hemos hablado de las publicaciones periódicas (revistas). En una próxima entrega podríamos hablar de las monografías (libros) y de cómo debéis hacer para DONAR TODOS LOS LIBROS QUE DESEÉIS a la biblioteca de la Asociación. Bueno, pero otra vez será. Hasta entonces, un bibliófilo saludo de vuestro bibliotecario.

Acta Entomológica Ibérica e Macaronésica	1	2003	
Acta Entomologica Musei Nationalis Praegae	45	2005	
Acta Entomologica Slovenica	14(1)	2006	
Adeve: Naturaren Ahotsa - La voz de la Naturaleza	53	1999	[...]
Aegyptus Monografía	13	1995	
Albolafia - Apuntes sobre los invertebrados andaluces	1	2006	
Aldizkaria (COBE Euskadi)	11	2007	
Anales de Biología (Universidad de Murcia)	3	1985	
Animal Biodiversity and Conservation (=Miscel·lania Zool·lógica)	19(1)	1996	[...]
Annali del Museo Civico di Storia Naturale "Giacomo Doria"	93	1999-2000	
Aranzadiana (Aranzadiko Berriak)	122	2001	
Biocosme Mesogéen (Revue d'Histoire Naturelle)	18(1)	2001	
Biogaia (COBE Euskadi)	1	2002	
Boletim da Sociedade Portuguesa de Entomologia	196	2001	
Boletín de Ciencias R.I.D.E.A. (Asturias)	49	2004-05	
Boletín de la Asociación Española de Entomología	24(1-2)	2000	
Boletín de la Real Sociedad Española de Historia Natural (Secc. Biol.)	100	2005	
Boletín de la S.E.A. (Aragón)	30	2002	
Boletín de la Sociedad Entomológica Cordobesa	1	1997	
Boletín de la Sociedad Andaluza de Entomología	3	2002	
Boletín informativo de la Sociedad de Amigos del MNCN	7	1997	
Bolletí de la Societat d'Història Natural de les Balears	45	2002	
Bollettino del Museo civico di Storia Naturale di Venezia	53	2002	
Bollettino del Museo Civico di Storia Naturale di Verona - Bot./Zool.	24	2000	
Bollettino della Società Entomologica Italiana	133(1)	2001	
Braunschweiger Naturkundliche Schriften	6(1)	2000	
Bulletin de la Société entomologique de France	111(2)	2006	[€]
Bulletin de la Société linnéenne de Bordeaux	30(1)	2002	
Bulletin de L'Institut Royal des Sciences Nat. de Belgique - Entomol.	71	2001	
Bulletin mensuel de la Société Linnéenne de Lyon	71(7)	2002	
Butlletí de la Institució Catalana d'Història Natural	67	1999	
Butlletí de la Societat Catalana de Lepidopterologia	82	1998	
Catalogus de la Entomofauna Aragonesa	26	2002	
Coleopterological Monographs	1	1990	
Cuadernos Altoaragoneses de Trabajo	17	1991	
Cuadernos de Biodiversidad (CIBIO Alicante)	2	1999	

Deutsche Entomologische Zeitschrift	48(1)	2001	
Die Lepidopterenfauna der R. heinlande und Westfalens	4	1995	
Ekaia (EHuko Zientzi eta Teknologi Aldizkaria)	14	2001	
Elhuyar Zientzia eta Teknika	216	2006	
Elytron	14	2000	
Entomologische Berichten	61(1)	2001	
Estudios del Museo de Ciencias Naturales de Álava	5	1990	
Fauna entomológica de Portugal	3	2002	
Gorosti - Cuadernos de Ciencias Naturales de Navarra	17	2002	
Graellsia	57(1)	2001	
Heteropterus	1	2000	
Heteropterus Revista de Entomología	1	2001	
IV Jornades de Medi Ambient de les Illes Balears		2004	
Il Naturalista Siciliano	29(3-4)	2005	
Klapalekiana	42(1-3)	2006	
Lambillionea (Revue Internationale d 'Entomologie)	103(1)	2003	
L'Entomologiste	1(1)	1945	[€]
Lycaeniden Bibliographie	6	1998	[...]
Lucas Mallada, Revista de Ciencias	1	1989	
Lurralde - Investigación y espacio	2	1979	
Manuales y Tesis S.E.A.	4	2002	
Melanargia	11(1)	1999	
Memoirs of the Entomological Society of Washington	4	1952	[...]
Memoria del Museo Nacional de Ciencias Naturales (CSIC)		2001-03	
Memorie del Museo Civico di Stor. Nat. Verona (2. ser.) Sez. Sci. Vita	15	2001	
Memorie della Società Entomologica Italiana	80	2001	
Mitteilungen des Internationalen Entomologischen Vereins	29(1-2)	2004	
Monografias S.E.A. (Aragón)	4	2001	
Monografias Tercer Milenio (PrIBES 2000)	1	2000	
Monográfico de la S.A.E. (Andalucía)	1	2004	
Monografies del Museu de Ciències Naturals	1	2003	
Munibe (Ciencias Naturales - Natur Zientziak)	48	1996	
Munibe (Suplemento - Gehigarria)	16	2004	
Naturzale - Cuadernos de Ciencias Naturales (Eusko Ikaskuntza)	17	2002	
NACC Nova Acta Científica Compostelana - Biología	12	2002	
Nouvelle Revue d 'Entomologie - Nouvelle Série	23(1)	2006	[€]
Orsis - Organismes i Sistemes	15	2000	
Proceedings of the Entomological Society of Washington	100(1)	1998	
Quaderni del Museo civico di Storia Naturale di Venezia	7	2002	
Revista Ibérica de Aracnología	5	2002	[...]
Rutilans	6(1)	2003	
Saturnia (Rv ta. Entom.)	16	2000	
Sessió Conjunta d 'Entomologia ICHN - SCL	10	1997	
SHILAP Revista de Lepidopterologia	31(122)	2003	
Spixiana - Zeitschrift für Zoologie	25(1)	2002	
Stuttgarter Beiträge zur Naturkunde, Serie A (Biologie)	646	2003	
Sustrai	64	2003	
Treballs de la Societat Catalana de Lepidopterologia	12	1992	
Vieraea - Folia scientiarum biologicarum canariensium	30	2002	
Zapateri	9	2001	
Zoologica Baetica	8	1997	
Zoosystematica Rossica	1	1992	
Zubia. Monográfico	11	1999	
Zubia	19	2001	

## LEPIDOPTERA

### ARCTIIDAE

#### *Diaphora mendica*

(Clerck, 1759)

Neurria: 30-40 mm.

Dimorfismo sexual garbia dute: arra gris-arrea da; emea, aldiz, zuria puntu beltzekin. Hala ere, emeen antzeko arrak ere aurki daitezke (forma naturala). Baso inguruetan egin ohi du hegan maiatza eta ekaina inguruan. Arra gautarra izan arren, emea noizbehinka egunez ikusi daiteke.

Beldarrak, hainbat landare mota janez elikatzen dira: *Urtica*, *Salix*, *Betula*...

Gipuzkoan oso urria da.



Tamaño: 30-40 mm.

Marcado dimorfismo sexual, el macho es de color gris-pardo y la hembra blanca con algunos puntitos negros, aunque existen machos semejantes a la hembra (forma rustica). Vuela entre mayo y junio alrededor de zonas boscosas. El macho es nocturno, pero la hembra se puede ver a veces durante el día. Las orugas se alimentan de distintas plantas bajas: *Urtica*, *Salix*, *Betula*...

Es muy escasa en Gipuzkoa.

## LEPIDOPTERA

### NOTODONTIDAE

#### *Gluphisia rurea*

(Fabricius, 1787)

Neurria: 25-35 mm.

Bi belaunaldi dituzte, aurrenekoa apiriletik ekainera eta bigarrena abuztutik irailera. Baso eta zelaietan egin ohi dute hegan. Arrak emeak baino antena adartsuagoak ditu eta hegoetako marrazkia ere arrena baino lausoagoa du. Espezie honetan hainbat forma eta itxura daude. Orokorrean argi artifizialera jotzen dute.

Beldarrak *Populus* eta *Salix* janez elikatzen dira.

Gipuzkoan arrunta da.



Tamaño: 25-35 mm.

Los adultos forman dos generaciones, la primera de abril a junio y la segunda de agosto a septiembre, volando en bosques y prados. El macho tiene las antenas más pectinadas que la hembra y el dibujo alar más borroso. En esta especie hay bastantes variaciones y formas. Acuden con facilidad a la luz artificial.

Las orugas se alimentan de *Populus* y *Salix*.

Es común en Gipuzkoa.




Neuria: 44-60 mm.

Bi belaunaldi ditu: bata apiril-ekainean eta bestea abuztu-iraillean. Gauzez egin ohi du hegan eta bereizteko erraza da.

Bere izen arruntak adierazten duen bezala (makale-tako konkorduna), ura gertu duten basoak eta zelaiak ditu gustuko. Emea arra baino handiagoa da eta antenak ez ditu arrak bezain zabalak.

Beldarrak *Populus*, *Salix* eta *Betula* hostoak janez elikatzen dira.

Gipuzkoan arrunta da.



Neuria: 48-65 mm.

Imagoek, hau da, tximeleta helduek bi belaunaldi dituzte: bat martxotik ekainera eta bestea abuztutik irailera. Lehenengo belaunaldian bigarrenean baino gehiago jaiotzen dira. Gautarrak dira, eta argi artifizialera jotzen dute.

Baso hostotsuak gustuko ditu. Emea handiagoa da, antena finak ditu eta aurreko hegoetako marrazkia nabarmenagoa du.

Beldarrak polifagoak dira: *Populus*, *Quercus*, *Fagus*, *Betula*, *Salix*, *Coryllus*, etab. janez elikatzen dira.

Gipuzkoan arrunta da.

LEPIDOPTERA

NOTODONTIDAE

*Pheosia tremula*

(Clerck, 1759)

Tamaño: 44-60 mm.

Vuela en dos generaciones, la primera abril-junio y la segunda agosto-septiembre. De actividad nocturna y fácil de identificar.

Como su nombre vulgar indica, el jorobado de los chopos, frecuente bosques y prados con agua cerca. La hembra es más grande y con las antenas más estrechamente pectinadas.

Las orugas se alimentan de hojas de *Populus*, *Salix* y *Betula*.

Es común en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOTODONTIDAE

*Stauropus fagi*

(Linnaeus, 1758)

Tamaño: 48-65 mm.

Los imagos vuelan en dos generaciones, la primera de marzo a junio y la segunda en agosto-septiembre. Tienen la mayor densidad de individuos en mayo y agosto. Su actividad nocturna las atrae fácilmente a la luz artificial.

Frecuentan bosques frondosos. La hembra es mayor con la antenas finas y los dibujos de las alas anteriores más marcados.

Las orugas son polívoras: *Populus*, *Quercus*, *Fagus*, *Betula*, *Salix*, *Coryllus*, etc.

Es común en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA  
NOTODONTIDAE  
*Peridea anceps*  
(Goeze, 1781)

Neurria: 50-65 mm.

Helduak erraz bereiz daitezke eta apiriletik uztaiera aurki daitezke, belaunaldi bakar batean. Baso hostotsuak dituzte gustuko eta gautarrak dira.

Emea handiagoa da, eta antena filiformeak ditu.

Beldarrak *Quercus*, *Betula* eta *Fagus* janez elikatzen dira. Lurrean, orbel artean, egiten dute krisalida.

Gipuzkoan arrunta da.



Tamaño: 50-65 mm.

Los adultos, fáciles de identificar, vuelan de abril hasta julio en una sola generación. Frecuentan bosques frondosos y son de actividad nocturna.

La hembra es mayor y con las antenas filiformes.

Las orugas se alimentan de *Quercus*, *Betula* y *Fagus*.

Crisalidan en la hojarasca del suelo.

Es común en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA  
NOTODONTIDAE  
*Notodonta ziczac*  
(Linnaeus, 1758)

Neurria: 34-50 mm.

Gautarra da eta bi belaunaldi ditu: lehenengoa apiriletik ekainera eta bigarrena abuztutik irailera. Arra txikiagoa da, aurreko hegoak zurixegoak ditu eta antena pektinatuak. Haritzak, urkiak, sahatsak eta makalak ditu gustuko.

Oso kolore aldakorra dute beldarrek, ekainetik irailera bizi ohi dira eta *Salix*, *Populus*, *Betula* eta *Quercus* janez elikatzen dira.

Gipuzkoan arrunta da.



Tamaño: 34-50 mm.

Tienen actividad nocturna y aparecen en dos generaciones: abril-junio la primera y agosto-septiembre la segunda. El macho es de menor tamaño, un poco más clarito en las alas anteriores y con las antenas pectinadas. Frecuentan robles y abedules y también sauces y álamos.

Las orugas, de coloración muy variable, viven de junio a septiembre y se alimentan de *Salix*, *Populus*, *Betula* y *Quercus*.

Es común en Gipuzkoa.



Neurria: 30-38 mm.

Helduek martxotik ekainera egiten dute hegan, belau-naldi bakar batean. Espezie hau hurrengotik aurreko hegoan ilargi itxura duen orban ilun batek bereizten du. Emeak handiagoak dira eta antena filiformeak dituzte. Tipikoa baino arruntagoa da grisea formakoa, hau da, aurreko hegoak grisaxkak, marrazki lausoa-koak eta atzeko hegoak ilunagoak dituena.

*Quercus* generoko zuhaitzak janez elikatzen dira bel-darrak.

Gipuzkoan arrunta da.



Neurria: 33-38 mm.

Belaunaldi bakar bat dute eta maiatzetik uztaiera aurki daitezke.

Aurreko hegoan duen marra zurixkak bereizten du *D. ruficornis*-etik, eta gainera ez dauka ilargi erdi beltza. Batetik bestera aldakortasun handiak egon daitezke. Emea berdintsua da, handiagoa, eta antena filiformeak ditu. Baso hostogalkorrak eta mistoak ditu gustuko.

Beldarra haritza, pagoa eta urkia janez elikatzen da. Krisalida moduan inbertatzen du.

Gipuzkoan arrunta da.

HETEROPTERUS - Página 14

LEPIDOPTERA

NOTODONTIDAE

*Drymonia ruficornis ruficornis*

(Hufnagel, 1766)

Tamaño: 30-38 mm.

Los adultos vuelan en una sola generación entre marzo y junio. Esta especie se diferencia de la siguiente por una mancha oscura en forma de media luna en el centro del ala anterior. La hembra es de mayor tamaño y con las antenas filiformes. La forma grisea con las alas anteriores grisáceas, dibujos más difuminados y alas posteriores más oscuras, es más común que la forma típica.

Las orugas se alimentan de árboles del género *Quercus*.

Es común en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOTODONTIDAE

*Drymonia dodonaea*

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Tamaño: 33-38 mm.

Los adultos aparecen en mayo-julio en una sola generación.

Se diferencia de la *D. ruficornis* por una línea blanquecina que atraviesa el ala anterior y por la ausencia de la media luna negra. Muestra gran variabilidad individual. La hembra es similar, más grande y con las antenas filiformes. Frecuentan los bosques caducifolios y mixtos.

La oruga se alimenta de robles, hayas y abedules. Inverna como crisálida.

Es común en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOTODONTIDAE

*Ptilodon capucina*

(Linnaeus, 1758)

Belaunaldi bakar bat dute eta apiriletik irailera aurki daitezke baso hostogalkorretan. Kolore aldakorra duen arren, erraz bereiz daitekeen espezie bat da. Emeak arrak baino handixeagoak dira eta antena filiformeak dituzte.

Beldarrak polifagoak dira eta hainbat zuhaitz eta zuhaixka janean elikatzen dira: *Betula*, *Quercus*, *Populus*, *Salix*, *Alnus*, *Ulmus*, *Prunus*, *Crataegus*, *Acer*...

Gipuzkoan arrunta da.



Tamaño: 35-40 mm.

Vuelan de abril a septiembre en una sola generación frecuentando bosques caducifolios. Especie fácil de identificar aun siendo de coloración variable. Las hembras son algo más grandes y con las antenas filiformes.

Las orugas son polípagas y se alimentan de diversidad de árboles y arbustos: *Betula*, *Quercus*, *Populus*, *Salix*, *Alnus*, *Ulmus*, *Prunus*, *Crataegus*, *Acer*...

Es común en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOTODONTIDAE

*Ptilodon cucullina*

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Tamaño: 35-40 mm.

Belaunaldi bakar bat dute eta ekainetik abuztura aurki daitezke. Ur-lasterren inguruan dauden baso hostogalkorrak dituzte gustuko. Kolore ikusgarriek paregabea egiten dute, eta emeak arrak baino handiagoak dira. Antena filiformeak dituzte.

Beldarrak, uztailetik irailera, *Acer*, *Ulmus*, *Quercus*, *Sorbus* eta *Corylus* generoetako landareak janean elikatzen dira.

Gipuzkoan urria da.



Tamaño: 35-40 mm.

Los adultos pueden verse volando de junio a agosto en una sola generación. Frecuentan bosques caducifolios cerca de cursos de agua. Es fácil de identificar por su vistoso colorido siendo las hembras algo mayores y con las antenas filiformes.

Las orugas se alimentan en los meses de julio a septiembre de plantas de los géneros *Acer*, *Ulmus*, *Quercus*, *Sorbus* y *Corylus*.

Es escasa en Gipuzkoa.



Neurria: 35-55 mm.

Bi belaunalditan aurki daiteke: lehenengoa martxotik ekainera eta bigarrena abuztutik irailera. Ezpain-palpo handiek eta aurreko hegoetako luzakinek nahastezina egiten dute. Arrak antena bipektunatuak ditu; emeak, aldiz, ez ditu oso pektinatuak. Baso hezeak eta makaldiak ditu gustuko.

Beldarrak *Populus*, *Salix*, *Quercus* eta *Tilia* janez elikatzen dira.

Gipuzkoan oso arrunta da.



Neurria: 30-36 mm.

Bi belaunaldi dituzte: lehenengoa apirila-maiatza bitartean eta bigarrena uztaila-abuztua bitartean.

Ur-lasterretan ikus daitezke maiz. Erraz bereiz daitezke aurreko hegoetan bi orban beltz dituztelako. Emea handiagoa da eta antenak ez ditu oso pektinatuak.

Beldarrak *Populus* eta *Salix* janez elikatzen dira.

Krisalidek hibernatu egiten dute.

Gipuzkoan urria da.

HETEROPTERUS - Página 16

LEPIDOPTERA

NOTODONTIDAE

*Pterostoma palpina*

(Clerck, 1759)

Tamaño: 35-55 mm.

Vuelan en dos generaciones, marzo-junio y agosto-septiembre. Inconfundible por sus grandes palpos labiales y sus prolongaciones de las alas anteriores. El macho tiene las antenas bipectinadas y la hembra finamente pectinadas. Frecuentan bosques húmedos y choperas.

